

Aretxabaleta,  
1994eko urriak 13

# Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS  
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.  
ARETXABALETA

## Atxabaltarrak unibertsitatean

- Dantzari eguna
- Gerontologi ikastaroa
- Aerobicaren arrakasta



3. Boteprontoan  
**Atxabaltan egin diren aldaketetatik, zein da gehien gustatzen zaizuna?**
5. Hamabostean behin  
**Zikloturistei bukatu zaie denboraldia.**
- 6-7. Hamabostean behin  
**Jubilatuen egunean giro ona nagusi.**
8. Hamabostean behin  
**Hiesaren aurrean Sensibilizazio Kanpaina.**
9. Hamabostean behin  
**Omenaldia Josebari.**
- 10-11-12. Erreportaia
18. Hurretik  
**Zuriñe Saez**
19. Apuntetako eta Aretxazoka

## UNIBERTSITATEA

Zure atara deika etorri dala unibertsitatea? makina batek hartuko geuke zuk daukatzun suertea! ikasten-edo pasa bazeike etxetik kanpo urtea moda berria izanagatik autobusean fatea etxatzu bape txarto etorriko afixatik urtetea

Ikaslearen paradisuak hiru edo lau hiriburu esperientzia ahaztezinez lau-bost bat urte inguru. Ez da bakarrik esamin, nota apunte eta liburu... besteok ere bizimoduaz horrelaxe egin dugu estudiatu ez dakit baina ikasi behintzat seguru.

*Arantzazu Loidi*

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelaiak. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** 55378/94



# Atxabaltan egin diren aldaketetatik zein da gehien gustatu zaizuna?



**Marixabel Arozena**  
(Etxekoandrea)

Santa Kurtzen egin duten parkea gustatu zait, baina nahiko hutsik ikusten dut.



**Pako Arana**  
(Jubilatua)

Egin diren obra guztiak gustatu zaizkit. Baina gehien Santa Kurtz kalean egin duten errotonda eta Maria Wórh pasealekua. Horrez gain, Markole aldea eta Arrueko txaleta primeran gertuko direla uste dut.



**Dunixe Zuazabeitia**  
(Etxekoandrea)

Parkea asko gustatu zait, gainera etxe ondoan daukat. Bestalde, Durana kalea lehenbailehen konpondu beharko litzatekeela uste dut.

## KARTAK

### Esker mila Aretxabaleta

Amnistiaren Aldeko Batzordeak, bere eta **Kepa Urra**ren izenean esker beroenak eman nahi dizkie Andramaixetan zein San Migeletan "Gestora Tabernan" lanean izan diren koadrila eta pertsona guztiei. Eskeinitako laguntza desinteresatu horri esker, berriz ere, bateragarriak egin ditugulako jaiak eta aldarrikapena: "JAIK BAI, BORROKA ERE BAI".

Jasotako diru-kopurua, ohi denez, presoen eta euren fami-

lien beharrei ( ikasketak, bisita-bidaia, etab. ) erantzuteko erabili ahal izango da.

Dispertsioa, Giza-Eskubideen zapalkuntza, Jipoiak, etabar luze bat, eguneroko ogia bihurtu zaien honetan, zuen, hau da, herritarren elkartasuna eta laguntza besterik ez dute. Hau dela eta, borroka tinkoan dihardugu, gutxiengo eskubide horiek berreskuratu nahian, euren AMNISTIA OSOA eta ETXERATZEA izan gure helburu nagusienetariko bat.

Azkenik, dei zabal bat luzatzen dizuegu atxabaltar guztioi hamabostean behin (larunbatean) antolatzen diren ENKARTELADAN parte har dezazuen. GURE ELKARTASUNA HAIENTZAT ARNASA BAITA.

PARTE HAR !!  
IDATZ IEZAIEZU !!

*Aretxabaletako Amnistiaren Aldeko Batzordeak.*





**Felipe Bengoa**, Atxabaltan bizi den aramaioarra Etxangoko Atxetara joan zen perretxikutan eta bidean 13 kiloko zepa aurkitu zuen. Zepa galanta eta ederra. Argazkian Felipe eta tamainu erroldoia duen zepa azaltzen zaizkigu. Pena da jateko balio ez izatea.

**Dantzari eguna izan genuen Atxabaltan joan zen igandean.** 350 bat dantzari ibili ziren kale gora kale behera. Egunean zehar dantza ekitaldi polita erakutsi ziguten etorritako guztiek. Herri askotatik etorri ziren dantzariak eta Loramendi dantza taldekoak ere ez ziren falta izan. Egun ederra eta ikusgarria era berean.



**MZ MASAILARIAK**

**MASAIK ZARAIA**  
MASAIK eta  
OSTEOPATIA

Loramendi 13 - 1-A  
Tfnoa: 79 71 55

**"HERRASTI"**  
**AKEITA ETXEA**



Aralar kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83



**IBARRA**  
**ESTANKOA**

**Tabakoa eta**  
**ikasmateriala**

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77





Taldeko partaide gehienak agertzen zaizkigu argazkian

## Zikloturistei bukatu zaie denboraldia

Atxabaltako zikloturistek bazkari batekin eman zioten bukara 94 denboraldiari. Arrasateko Gorosti Jatetxean 22 lagun elkartu ziren eta domekero egin dituzten bizikleta bidaia desberdinak eta izandako anekdota bitxiak gogoratzeko aukera izan zuten. Bazkari aurretik 58 kilometroko irteera egin zuten eta bertan 30 lagun elkartu baziren ere, bazkarian 22 lagun besterik ez ziren egon.

Urriaren 2an izandako bazkariarekin, agur esan diote denboraldiari eta martxoa arte merezitako atsedena izango dute. Martxoan berriro ere, martxan jarriko dira denboraldi berriari aurre egiteko. Bazkarian 22 lagun elkartu

ziren arren, taldean 86 lagun direla esan beharra dago.

Bazkarian zenbait sari banatu ziren domekeroko irteeretan lehialtasun gehien erakutsi duten zikloturisten artean. Aurtengo denboraldian guztira 25 irteera egin dituzte, eta Nazario Gomezek ez du sekula kale egin. Bera dugu kilometro gehien egin duen Atxabaltako zikloturista, gutxi gorabehera 2.280 kilometro egingo zituen bukatu berri den denboraldian. Bi domeketan bakarrik kale egin dutenen artean; Manuel Baena, Luis Migel Baratas, Angel Blazquez, Manuel Mateos, Luis Mari Otxoa eta Luis Sanabria agertzen zaizkigu Guztia hauek denboraldian egin duten

lana ere txalotzeko modukoa da. Eta hiru irteeretan huts egin dutenen artean Miguel Santa Teresa dago. Aipatutako guztiek egin duten lan bikaina goraiatzeko opari bana jaso zuten, merezitako oparia gainera.

Bestalde, joan zen astean zikloturistek bilera izan zuten Zuzendaritza batzordea berritzeko, eta bertan egindako botazioaren ondoren, bi lagun berri sartu dira batzordera: Dionisio Mena eta Jesus Mari Rosado hain zuzen ere. Orain zuzendaritza batzorde berria honela geratu da osatuta: Jesus Mari Herrasti, Juan Aldabe, Jose Luis Fernandez, Angel Blazquez, Jesus Mari Rosado eta Dionisio Mena.






## Jubilatuen egunean giro ona nagusi

Jubilatuen eguna eguna ospatu zen Atxabaltan urriaren lehen zapatuan. 12etan Meza izan zuten Parrokian eta ordu biak aldeira Kirol-etxera inguratu ziren bertan bazkaltzeko. Bazkarian 280 jubilatu elkartu ziren. Herriko zaharrenek opari berezia izan zuten. Gizakumetan, Julian Elortza Jauroso 91 urtekin dugu herriko zaharrena eta emakumetan Ines Horrillo Hurtado 95 ur-

tekin. Bi sari hauez gain, beste hiru sari banatu ziren. Lehena Fagorrek emandako ikuzgailua izan zen eta Francisco Solisek irabazi zuen. Bigarren saria, bi pertsonentzako afaria Atxabaltako jatetxe batean, Carmen Diaz de Gereinuk irabazi zuen, eta Basotxok urtean zehar egiten dituen bidaiak ordainduta izatea izan zen hirugarren saria, Isabel Lozanok eskuratu zuela-

rik. Gainera, Atxabaltako jubilatu guztiek, bazkarira joan zirenek eta ez zirenek joan ere, Gizarte zerbitzu sailekoen eskutik opari bat jaso zuten. Era berean, Ortzadar taldeko neska-mutilak bazkaria banatzeko arduradunak izan zirela esan beharra dago eta beti bezala oso ondo bete zuten lana. Bazkal ostean, dantzaldia egon zen eta jubilatuak blai eginda geratu arte dantzan ibili ziren.

# EGUZKIGRAF



**Aldizkariak  
Inpresoak  
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA  
Tfnoa.: 943- 79 18 44 Faxa 943-79 29 41

## EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43





## Jubilatuentzako bidaiak

Urtero egiten den legez, aurren ere Inersok zenbait bidaia antolatu ditu adineko pertsoneri zuzenduta. Bidaia hauetara joateko bete beharreko baldintzak honako hauek ditugu: 65 urte beteta izatea, edo Gizarte Segurantzaren sistemako jubilazio edo baliaezintasuneko pentsioduna izatea, edo 60 urte beteta dituen alarguntzako pentsioduna izatea; gaixotasun infekzio-kutsagarriarik ez izatea; norbere kabuz baliatzea eta ezarritako ordainketa epe barruan egitea.

Antolatu dituen bidaien ar-

tean kultur zirkuitoak daude: Madril eta inguruak ezagutzeko zirkuitoak 13.680 pta. balio du eta sei eguneko iraupena dauka. Kanariak irletara antolatu duten bidaiak 24.400 pta. balio du eta 8 egunetako bidaia da. Bidaia hauek apiriletik maiatza arte egin daitezke. Esandako bidaiez gain, beste batzuk ere antolatu dituzte eta informazio zehatza eduki bezain pronto, euren berri emango dizuegu. Hala ere, aipatutako bidaiaren bat interesatu ezker, Udaletxean informazio zehatza goa jaso dezakezue.

## Atxabaltako abesbatza

Larunbat honetan, hilak 15, Atxabaltako Abesbatzak kontzertu bat eskainiko du arratsaldeko 8etan herriko Eliza Nagusian.

Aipatutako kontzertua 10 abestik osatuko dute, polifonia eta floklorea abestuko dutelarik. Bi izan dira, nagusiki, kontzertua eragin duten faktoreak: alde batetik, abesbatzak berak bazkideekiko duen konpromezua eta kontsiderazioa ( hauek ez baitute sarrerarik ordaindu behar izango), eta bestetik, Abesbatzaren irudi berria, hau da, partaide berriak aurkeztu. Kontzertuaren atsedeanaldian Haurren abesbatzak ere bi kanta eskainiko ditu.

Bazkide ez direnek 200 pta ordaindu beharko dituzte kontzertura sartu ahal izateko.

### SAGASTA

#### ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak  
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14  
☎ 79 16 10



INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S. A

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66

### IMANOL ARRAZOLA

#### KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D  
☎ 79 93 55



## Hiesaren aurrean Sensibilizazio kanpaina

Azaroaren 7tik 10era bitartean Hiesari buruzko sensibilizazio astea egingo da Atxabaltan. Astelehenean, herrian zehar kartelak ipiniko dira eta mahai informatiboak ere egongo dira. Martizenean kartel erakusketa eta bideo informatiboak izango ditugu. Eguaztenean hitzaldi-debatea egongo da arratsaldeko 6etan eta eztabaidatuko den gaia "Hiesaren egoera gauregun" da. Eguenean, arratsaldeko 6etan Hiesaren

inguruko filmea ikusteko aukera izango dugu. Bestalde, irailaren 17tik 23ra Programaren menpekotasunari aurre egiteko Europako II. astea ospatuko da. Atxabaltan irailaren 20an, gai hori erizpide harturik, antzerki bat izango dugu. Antzerkia Kurtzebarri eskola eta Almeneko lehen eta bigarren zikloko neska-mutilei zuzenduta dago. Bihar antzerki taldeak, "Bizi alai III." antzeztuko du goizeko 9.30etan.

## Gerontologi laguntzaile ikastaroa

ICTEK, Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioak antolatuta, Gerontologiako laguntzaile ikastaroa emango du Arrasaten. Ikastaroak 150 orduko iraupena izango du eta klase teorikoak praktikoekin tartekatuko dira. Ikastaroa azaroan hasiko da eta maiatzean bukatu. Klaseak martizen eta eguenetan emango dira, 5.30etatik 8etara. Matrikularen prezioa 9.000 ptakoa da eta hile-ro beste 9.000 ptako kuota ordaindu beharko da.

Inolako esperientziarik izan ez arren, arlo honetan hezitzeko interesa dutenei eta pertsona nagusien zainketa eta ardurarekin harremana daukaten profesionalen zuzenduta dago. Ikastaro honen bitartez hirugarren adinaren esparruan eragiten duten osasun, gizarte eta aspektu psikologikoak landu gura dira. Besteak beste, gizarte, osasun, psikologia eta giza-arloak landuko dira ikastaroan



**Irailaren 4an, Martizena, inauguratu zuten Bedarreta auzoa.** Inaugurazioan Jose Antonio Maturana Hirigintzako eta Ingurugiroko kontseilaria ere egon zen.

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34  
79 31 87

**M**obiliario  
**A**RENAZA

*ALTZAIURUAK  
DISEINUA  
APAINKETA*

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA



## Omenaldia Josebari



Joseba korrikalariak plaka bat jaso zuen Udaletxeko en eskutik

Joseba Larrañaga Berlingo Munduko maratoin elbarrituen mailan lortutako 2. postuagatik, ongietorri berezia jaso zuen Udaletxeko pleno aretoan, irailaren 28an. Udaleko arduradunek omenaldi moduan plaka bat eman zioten eta Aitor Antxia Alkatea etortzerik izan ez zenez, Domingo Clemente alkateordeak eman zion. Josebak eskerrak eman zituen, bertara inguratu ziren atxabaltarren berotasunaz lagundurik. Pleno aretoa atxabaltarrez bete zen eta txalo artean jaso zuen Josebak merezitako omenaldia. Pleno

aretoan herritarrez gain UDA eta Almeneko ordezkariak ere egon ziren eta jende artean Pedro Azkargorta, Josebari horrenbeste lagundu dion entrenatzailea.


Bestalde, urriaren 16an bazkari omenaldia egingo zaio Josebari Atxabaltan. Domekan bazkaria Matikuan izango da eta bertara joateko izenematea Arlutz tabernan egin behar da. Bazkal ostean, UDAn eta Eskoriatzak Almeneko futbol zelaian jokatu behar duten denboraldiko neurketa aprobetxatuz, Almen K.E. koek eta UDAn omenaldi berezia egingo diote.

## Ibarrako Zelai artifiziala noizko?

Ibarran zelai artifiziala jarzteko egiten ari diren obrak atzeratu egin dira, azkenaldi honetan botatako eurien ondorioz. Dagoeneko, instalazio elektrikoa, drenajea, ureztatze sistema eta urak batzeko kanalizazioa eginda daude.

Adituek esan digutenez, azaroaren bigarren hamabostaldirako lan guztiak bukatuta egotea espero dute, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Azpiegitura eginda dutenez, falta den apurra laster bukatzea espero dute.

Esandakoa egiaztatzen bada, azaroko azken astean UDAn talde desberdinek zelai artifizialean jokatu dituzte denboraldiko partiduak. Birtartean, Atxabalpeko anexoan eta Almenen jokatzeko jarraitu beharko dute.



## HAIZEA AKEITEGIA

Mitarte Kalea, Z/G  
Tfnoa: 79 85 57

## ARETXABALETA ITURGINTZA

;Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETA





## Gero eta unibertsitari gehiago

Ikastetxeetako ikasketak bukatzen direnean, gero eta jende gehiago joaten da Unibertsitate-ra.. Gaur egun karrera guztietan masifikazio handia dago. Goi Batxilergo ikasketak bukatzerakoan gazteentzako lana ez dagoenez, ikasten jarraitzea izaten da ia gehienek aukeratzen dutena.

Atxabaltako "Hezibiden" jasotako informazioaren arabera, Atxabaltako 300 bat gazte ari dira Unibertsitate desberdinetan ikasten. Bertan aurkitu ditugun datuen arabera, Ingenieritza eta Enpresa zientziak dira Atxabaltako gazte

gehienek aukeratu dituzten ikasketak. Orain arte, etorkizun haundiena izan dutenak direla aintzat harturik, nahiko logikoa da. Bestalde, Magisteritza, Erizaintza, Zuzenbidea eta Filologia ere arrakastatsuak dira atxabaltar gazteen artean. Dena dela, jendeak ikasketa teknikoetara jotzeko aukera duela esan dezakegu. Soziologia edo Psikologia moduko ikasketek asko galdu dute azken urteetan.

Erreportaia bideratzeko, bi ikaslerekin egon gara berbetan eta Unibertsitateko irakasle baten eritzia ezagutzeko aukera ere izan dugu.





**Miren Lasagabaster**  
(erizaintzako ikaslea)

**- Gasteizen ikasten ari zara, zergatik aukeratu duzu egunero joan-etorria egitea?**

- Batetik, zure etxean zaudelako eta hori beti erosoagoa da, bestetik askoz ere merkeago irtetzen duelako.

**- Ez da gogorra egunero joan-etorrian ibiltzea?**

- Goizean jaiki beharra eta eguraldi txarra egiten badu nahiko gogorra egiten da.

**- Duela urte bi Gasteizen etxe batean bizi izan zinen, zer moduz orduan?**

- Etxean egoten ohituta nengoen eta piska bat gogorra egin zitzaidan. Etxean beste lagun batekin bizi izan nintzen eta askotan bakarrik egoten nintzen eta nahiko aspertuta.

**- Unibertsitatea zuretzat salto handia izan da?**

- Almenen baino gehiago ikasi behar da eta dena beste erritmo batean doa. Dena dela, ikasketetan irakasleak gainean izaten ditugu, beraz, alde horretatik ez dut desberdintasun handirik ikusi.

**- Lagun haundiak egiten dira unibertsitatean?**

- Ni nagoen Unibertsitatean Erizaintza besterik ez da ematen eta gelan 62 bat lagun gaude. Beraz, ez dago lagun handirik egiteko aukerarik, lagunak egiten dituzu baina besterik barik.

**- Unibertsitatean bertan bizi duzuen giroa zelakoa da, kompetentzia handia dago zuen artean?**

- Ni ikasten nabilen tokian ez dut kompetentzia handirik igarri, batzuek diote Unibertsitatean ikasleentzako arteko kompetentzia handia dela, baina nik behintzat ez dut horrelakorik bizi izan.



**Agurtzane Iñurrategi**  
(fisioterapiako ikaslea)

**- Zaragozan etxe batean bizi zara, zenbat bizi zarete bertan?**

- Iaz lau lagun bizi izan ginen, aurten barriz, 5 lagun bizi gara.

**- Nolako da zuren arteko harremana etxean?**

- Ondo konpontzen gara. Bakoitzak bere mundua du eta askotan gauza batzuk aguantatu behar dituzu, baina zu ere aguantatu behar zaituzte. Beraz, erlazio hori ondo eraman ezker, nahikoa da giro ona egoteko.

**- Nola banatzen dituzue etxeko lanak?**

- Gure erara banatuta dauzkagu etxeko lanak. Egun batean bati tokatzen zaio harrikoa (fregaua) eta janaria egitea; hau txandaka doa. Gero komunak eta egongelaren garbiketa egiteko ere banaketa eginda daukagu. Bestalde, norberak bere gela txukun izaten arduratu behar da.

**- Aldaketa handia izan da Unibertsitatea?**

- Hasieran gogorra egin zitzaidan, klaseak gaztelarez nituen, jende ezezaguna, etxetik kanpo... baina gero ohitu egiten zara. Orain ez dut aldaketa handirik antzematen.

**- Unibertsitatean lagun handiak egin daitezke edo hotza da?**

- Zaragoza aldean, gu euskaldunok elkarrekin ibiltzen garenez, lagun haundiak egin ditut eta gero pisuan ere lagun handiak egin daitezke.

**- Unibertsitatea uste zenuena da?**

- Ez nuen Unibertsitateari buruz irudi zehatzik, beraz, ez dut harriturik hartu. Hala ere, nota onak eduki arren, ikasleentzako arteko kompetentzia handia dagoela iruditu zait. Nire Unibertsitatean behintzat horrela da, beste batzutan zer gertatuko den ez dakit.



## Nuria Agirre: unibertsitateko irakaslea

Nuria Agirre Soziologian lizentziatua da, Deustuko Unibertsitatean ikasi zuen eta Madrilen Enpresa zuzendaritza eta Giza-Baliabideei buruzko Masterra egin zuen. Une honetan, Donostiako Enpresa Zientzien Fakultatean irakasle da eta "Enpresaren Soziologia" ikasgaia irakasten du. Klaseak lehen mailan ematen dituenek, Unibertsitatera sartu berri diren ikasleekin ditu harremanak Nuriak.



**- Duela gutxi Unibertsitateko ikasle zinen, orain berriz, irakasle. Ze aldaketa dago?**

- Beste bizitza erritmo batean murgildurik zaude. Erantzukizun haundiagoa duzu eta zuk egin dezakezun lana eragina du beste batzurengan. Irakasle moduan ikasle zinenean ikusten zenituen hutsuneak konpontzen saiatzen zara, nahiz eta askotan hutsune horiek konpontzea ez egon zure esku. Bestalde, irakasleok aukera dugu gustatzen zaigun ikasgaiaren gainean ikerketak eta azterketak egiteko, gai hori sakontzeko aukera azken finean. Hala ere, oraindik askotan, nire burua ikasle moduan ikusten dut, Doktoratuko 2. kurtsoa egiten ari naiz eta.

**- Ze harreman daukazu ikasleekin?**

-Horrenbeste ikasle izatean harremana ez da oso sakona izaten. Dena dela, beti ahalegindu izan naiz ikasle-irakasle arteko muga apurtzen.

**- Unibertsitateko irakasleek lehenengo urteetan egin behar dute lana, gero lasaiago egoteko, zuzena da ideia hori?**

- Ideia hori ez da zuzena. Ikasgai bat ez da urte betean prestatzen, beti esku artean gai berriak izaten dituzu eta lan asko egin behar da gai berri horiek ikasleei ondo transmititzeko. Urteak urtera programak aldatzen dira, beraz irakasle bat ezin da aldaketa horietatik kanpo egon.

**- Unibertsitatean kurtsoa azterketa batekin baloratzen da askotan, zer deritzozu honi buruz?**

-6 ikasle izango banitu ez nuke azterketarik egingo, baina gaur egun dugun ikasle kopurua ikusita, ez dago beste irtenbiderik. Beharbada, ez da egin daitekeen gauza onena eta ezta justuena ere, baina bizi dugun egoerak hortara garamatza.

**- Ikasleek askotan irakasleak kritikatzeko dituzte klaseak aspergarriak direlako. Orain**

**zu irakasle izanda, nola prestatzen dituzu klaseak?**

- Horrenbeste ikasleekin zaila da, ikasle-irakasle arteko feedback-a edo interakzioa bilatzea. Egia da, era berean, gaur egun klaseak monologo hutsak izaten direla, baina monologo amenoak egiten saiatzen gara, teoria praktikarekin nahastuz.

**- Irakasle izateak dituen alde onak eta txarrak?**

- Alde onak, zuri gustatzen zaizun gaia aztertzeke eta sakontzeko aukera duzula, eta baita Unibertsitate munduaz harremanetan egoteko ere. Txarren artean bi aipatuko nituzke. Batetik sozialki irakasleen bizitza desprestigiaturik dagoela uste dut, ez dugula ezer egiten eta horrelakoak entzuten dira. Bestalde, norbait suspenditzen duzunean, askotan zerbait pertsonala duzula pertsona horrekin dirudi, nahiz eta egia ez izan, horrelako egoera baten aurrean irakasleak ere ez du ondo pasatzen.





Pili Muñagorri da aerobic-eko irakaslea

## Aerobic klaseak arrakastatsuak oso

Urriaren lehen astean hasi ziren Aerobic-eko klaseak Loramendi dantza taldearen lokalean. Astelehenetik eguakotxera bitartean egunero aerobic-a egiteko aukera dago Atxabaltan. Hiru txandatan banatu dituzte klaseak: Goizez 9.10etatik 10.10etara joaten direnak astelehen, eguazten eta eguakotzetan dituzte klaseak. Eguerdikoak, berriz, 3etatik 4retara, martizen, eguen eta eguakotzetan. Eta 7etatik 8etara doan txanda aukera dituztenek astelehen, eguazten eta eguene-

tan praktikatzen dute aerobic-a. Dagoeneko, arratsaldeko txanda beteta dago baina goizeko nahiz eguerdiko txandetan lekua dago. Aerobic-eko klaseetan gorputzeko atal guztiak lantzen dira ariketa desberdinak eginez. Honez gain, musikaz baliatuz erritmoa eta koordinazioa bilatzen dira. Une honetan guztira 57 lagun dabilta aerobic-a egiten eta Pili Muñagorri irakasleak esan digunez denak emakumeak dira. Dena dela, kirol hori guztientzat ona da, gizakume zein emakume izan.

## Gimnasia ikastaroak Kirol-etxean

Kirol-etxean hasi dira gimnasia ikastaro desberdinak. Guztira hiru ikastaro antolatu dituzte eta urriaren lehen astean martxan jarri ziren. Mantenimenduko gimnasia ikastaroa astean hiru egunetan egiteko aukera dago: astelehen, eguazten eta eguakotzetan. Goizez 9.15etan eta arratsaldez 5.30etan eta 6.30etan. 3. adinari zuzendutako ikastaroa astelehen, eguazten eta eguakotzetan ematen bada ere, ordu-tegiari dagokionez aldaketa batzuk daude: goizez 10.30etan eta 11.15etan; arratsaldean ez dago 3. adinari zuzendutako ikastarorik. Hirugarren ikastaroa ezindu fisikoentzat antotatu dute. Klaseak martizen eta eguenean izaten dira arratsaldeko 6etatik aurrera. Alfredo Meabe arduratzen da ikastaro guzti hauek ematen, eta esan digunez oraindik tokia dagoenez norbait interesatuta badago, Kirol-etxera dei egin dezake edo bertara zuzendu.


### LASA-AGUILERA

#### Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26  
ARETXABALETA

### LEIBAR

#### ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABALETA



# Titulorik ez... intsumisiaoa



J. J. Aretxaga

Mendian lorarik ikusten ez den sasoiaren mendiko lorak aitatuaz hasiko naiz. Loramendi elkartearen aldaketak egon ei dira. Loramendin liberatu lanetan zebiltzan **Jon Iñaki Izarzelaiak** eta **Jon Zuazabeitiak** orain beste zeregin batzuk dituzte. Jon Iñaki Baionara joan da bizitzera eta Jonek, barrez, EHNE nekazarien sindikatuan dabil lanean. Baina ez pentsatu euren lekuak hutsik geratu direnik, barriak hasita daude lanean. **Jon Ander Loidi** eta **Miren Iriondo** dira "ordezkoak". Lehenengoa nahikoa ezaguna da; bigarrena, barrez, gehienok ez duzue ezagutuko. Coprecin esan didatenez Elgoibarkoa da eta asko gustetan zaio Atxabalta. Nahikoa da, ezta? Zertarako behar duzue informazio gehiago?

Joan zen zapatuan omenaldia egin zi-

tzaion **Juan Arregiri**, herriko kulturelkar-teei hainbeste lagundu dien gizonari. Herriko musika eskolak eta koruak oho-rezko bazkide izendatu zuten. Ekitaldia eguerdiko ordubatean egin zen udal-etxean eta gero bazkaltzera joan ziren Tabernabarrikora. Bazkarian **koruko** eta **musika eskolako** direktibak egon ziren eta baita **alkatea** eta **Delgado** be. Bazkalostean betikoa, musika eta kant-  
tuak ugari...

Domekan Oiartzunen intsumisio egu-  
na "ospatu" zen. Kontua ospatzea da.  
Baina lan ere egin zuten. Antolaketan  
lagunketako dozena bat atxabaltar joan  
ziren zapatuan: **Andoni Urzelai, Igotz  
Urzelai, Mikel Sasiain, Manex Larri-  
naga, Tomas Madinabeitia, Gorka  
Lete, Aitor Bengoa, Luis Mari Fer-  
nandez,....** Domekan, barrez, autobus-  
kada joan zen Atxabaltatik. Gure sasoi-  
an ez zegoen horrelako "mobidarik", ondo  
egiten dute...

Eta datorren urtean bai, Maritxu ka-  
joi egunean gurea dena berreskuratuko  
dugu. Ezetz asmau.



## LASAGABASTER

### ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55





H

ona hemen **Jesus Errasti Idigoras eta Felisa Arana Ezpeleta**, orain dela 50 urte, Bedoñan ezkondu zireneko argazki batean.

Bikotea 1994-10-12an urrezko ezteiak egin dituzte. Hau ospatzeko, lehendabizi Sanlluenteko San Blas ermitan meza izan zuten eta ondoren familia guztiarekin Baster-alde jatetxean bazkaria.

Esan beharra dago Arantzazura eta Bilbora egin zutela eztei bidaia. Aurten berriz, Palma de Mallorkara joango dira.

Gure aldetik zorionik beroenak!!



# Aretxagazetako bazkideok 20.000 pta. irabaz ditzakezue hamabostero.

**C**AJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXAri esker, eta goiko titularrak dioenez, atxabal tarron aldizkari honen bazkide zaren horrek diru-sorta ederra zureganatu dezakezu hamabostero Gabonak bitartean.

CAJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXAk gure sariketa honetan saridun suertatzen denari opari bikaina emango dio, baina bi eratakoa izan daiteke:

1) Aipatutako saridunak nolabaiteko lotura (nomina helbideratua, Superlibreta, Gazte-Kontua, etabar) baldin badauka Euskadiko Kutxarekin, honek **20.000 pta.** emango dio.

2) Saridunak Euskadiko Kutxarekin inolako loturarik ez badauka, ordea, saria **10.000 pta.**koa izango da Superlibreta edo Gazte-Kontuan sartzeko.

Majo etorriko zaizu halako opari zoragarria. Zain daukazu zure kontuan sartzeko. Kopuru txiki baten trukean sari zoragarria eskuratu dezakezu.

Lehenik eta behin, hori lortu ahal izateko, **ARETXAGAZETA aldizkariaren** bazkide izan behar duzu. Hotsegizu, 79 01 05 telefonora eta atsegin handiz egingo dizugu kasu.



Irailteik Gabonak arte, "Argaziarekin jolasean" eta "Galderekin jolasean" txandakatuz ibiliko gara. Aurreko orrialdean ikusi duzuenetz, merezi du parte hartzeak. Jakizu joku honetan **bakarrik ARETXAGAZETAKO bazkideek** har dezaketela parte. Kasuan kasuko, 10.000 eta 20.000 pta gorde ditugu zuretzat

## BAZKIDEEK BAKARRIK IZANGO DUTE JOKU BARRI HONETAN PARTE HARTZEKO AUKERA




▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen.

▼ Aurreko zenbakiko erantzunak:

- Larrin Plaza
- Tablaseko Jauregia
- Fernando Oruesagasti

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea, **KOLDO ZUBILLAGA**.



### Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?



Erantzuna: .....

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Tfnoa: .....





**Izena:** Zuriñe Saez  
**Ofizioa:** Miren- Zuriñe dendako bitxigilea  
**Afizioa:** Margotzea  
**Misioa:** Ahalik eta ondoen egin nire lana

**1.- Jende gaztea edo heldua etortzen da bitxiak erostera?**

- Guztira etortzen da, jende gazte asko ere bai.

**2.- Zer da gehien saltzen duzuna?**

- Gehienbat eraztun eta be-larritakoak.

**3.- Diamantea ala zafiroa?**

- Zafiroa, merkeagoa denez gehiago saltzen da.

**4.- Zerk bultzatuta sartu zinen bitxi-saltzaile?**

- Esmaltean lanak egitea asko gustatzen zitzaidan eta Bartze-lonara joan nintzen bitxitegi ikas-ketak egitera.

**5.- Zure akats bat?**

- Asko, ez nuke jakingo zein azpimarratu.

**6.- Birtute bat?**

- Hauek ere baditut noski, baina akatsak gehiago na-

barmentzen dira.

**7.- Ze opari egingo zenioke lagun berezi bati?**

- Orainsu, poltsiko-erloju ba-ten katea oparitu diot.

**8.- Aretxabaltako alkate ba-zina, zer aldatuko zenuke?**

- Ez dakit, nire ustez Atxabal-tak ez dauka aldaketa handiren beharrik, nahiko ondo dagoela uste dut.

**9.- Ze moduzko giroa ego-ten da Atxabaltan gauetan?**

- Inguruko herrietan jaiak ego-nezkerok jende gutxi geratzen da, bestela giro ona egoten da.

**10.- Arrain edo okela?**

- Arraina.

**11.- Zapatak, takoidunak edo takoigabeak?**

- Momentu honetan takoiba-rik, erosoagoak dira.

**12.- Zinean ikusi duzun pe-likularik atseginena?**

- Beharbada aspaldian ikusi ditudanetatik "Lau ezkontza eta hileta bat".

**13.- Zein da gehien gusta-zen zaizun aktorea edo akto-resa?**

- Orain ez naiz izenez oroit-zen, baina "Lau ezkontza eta hileta bat" filmeko protagonist.

**14.- Irakurtzea gustatzen zaizu, zein da idazle gogokoe-na?**

- Irakurtzea atsegin dut, ge-hienbat nobelak irakurtzen di-tut. Idazlerik gogokoena Isabel Ayende dut.

**15.- Aretxagazeta irakurt-zen duzu, zer da gehien atse-gin duzuna?**

-Aretxagazetatik guztia irakurtzen dut, bertako berriak interesatzen zaizkidalako, eta gainera euskaraz irakurtzeko aukera ematen didalako.

## OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69

ARETXABALETA

## ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK

## Marti

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16

☎ 79 01 72



## 16 DOMEKA

- Zاراia Mendi Taldeak " **Mendia berez garbia** " eguna ospatuko du.

- Arratsaldeko 5etan Amaia Antzokian HAUR ZINEA. " **Asterix: El golpe del menhir** " filmea (marrazki bizidunak). Sarrera: 200 pta.

- Besaide Mendi Elkartearen irteera: **Valdezaray-San Lorenzo-Monasterio Valvenera (Errioxa)**.

## 17 ASTELEHENA

- Arrasateko Harresi Aretoa urriaren 17tik azaroaren 18ra: **Plan Orokorren Erakusketa**.

## 18 MARTIZENA

- Pleno Aretoa eta AEDk antolatuta: **-Arrasateko Literatur Tailerra sortzeko proposamena-** AED kko liburuaren aurkezpena.

## 20 EGUENA

- "Bihar" antzerki taldeak, " **Bizi alai III** " antzezlanaren eskainiko du Loramendi dantza lokalean.

## 23 DOMEKA

- Murruxiko Mendi Elkartearen **gaztetxoaren irteera**.

- Arratsaldeko 8etan Amaia Antzokian **Errusiako Orkestaren KONTZERTUA**, Arrasate Musika-lek antolatuta.

# ARETXAZOKA

### Lana

- ✓ Ingelesko eta frantseseko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 32 73.

- ✓ O.H.O.tik F.P.rarte klase partikularrak ematen dira. Interesatuak deitu 79 86 72 telefonora.

- ✓ Neska bat prest dago umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu 79 89 56 telefonora.

- ✓ Etxeko lanak eta umeak zaintzeko neska bat prest dago. Tlfnoa: 79 77 12.

### Etxebizitza

- ✓ Pisua osatzeko neska bat behar dugu Atxabaltan. Interesatuak deitu 77 05 10 telefonora.

- ✓ Eskoriatzan jantzitako solairu bat alokatzen da. Interesatuak deitu 79 87 26 telefonora.

- ✓ Garajea alokatzen da Santa Kurtz kalean, 24, -Lezama-. Interesatuak deitu 79 05 28 telefonora.

### Salerosketak

- ✓ Ekonomikazko 1. go kurtsoko bi liburu salgai daude prezio onean. Matematika eta Mikroekonomiari buruzko Sarrikoko bi liburu dira. Interesatuak deitu 79 24 02 telefonora 6,30etatik aurrera.

- ✓ Garaje bat salgai dago Andra Mari Zuri kalean. Interesatuak deitu 79 68 35



**LASTER IREKIKO DA ( Urriak 28 )**  
**OBSTETRIZIA ETA GINEKOLOGIA KONTSULTA**  
**SERRANO Sendagilea**

Minbizi genitalaren prebentzioa  
Antisorkuntza  
Menopausia  
Titi-patologia  
Kirurgia

Haurdunaldia  
Jaioaurreko diagnostikoa  
Esterilizazio kirurgikoa (gizon eta emakumezkoa)  
Esterilitatea  
Ginekologia psikosomatikoa

**Prezio bereziak 25 urtetik beherakoentzat, etxeoandrentzat eta Hirugarren adinekoentzat**

(Lagun-Aro Aseguruak, Igualatorio Mediko-Kirurgikoa ...)

**San Martin Osasun-zentroa**  
**Ramon Maria Lili kalea, 2 ( lehengo Lasaren atzeko aldean)**

**Bergara**  
**Telefonoak: 76 59 39 - 72      Faxa: 76 25 72**



*Feli Jantzidenda*

Iparragirre, 4  
Tlfnoa: 79 21 24

**MODAN**  
**DAGOEN**  
**GUZTIA**